

– Garizuma –

Maitasunari zor zaio sinesmena

Arantzazu, 2017ko apirilaren 1ean

## 1. Hasiara (Poema)

Hemen gaude, adiskideok,  
iturriaren ondoan eserita,  
egarriaren eguzki berotan,  
esperantzaren itzalean,  
maitasunaren besotan,  
Arantzazu hontan.

Maitasuna esan dut...  
Bai, maitasuna...  
Ondo dakigu, oso ondo:  
maitasun ezak gaitu erretzen,  
maitasunak baretzen,  
maitasunak edertzen.

Maitasunik gabe, ezer ez...  
Maitasunarekin dena...  
Eta hemen gaude,  
iturriaren ertzean,  
ezinaren leizean,  
beharraren atzean.

Garizuma aldi hau  
maitasunaz zaigu mintzo,  
maitasun kuttunaz...  
guk uste ez dugunaz,  
Jaunak egin digunaz,  
ulertezina den maitasunaz.

Eta hemen gaude, txundituta,  
dohaina sinetsi, ez sinetsi...  
maitasun-urik gabe ezin etsi...  
Jauna, esango dizut egia:  
sinesteko handiegia,  
onartzeko gehiegia.

Zuk ireki dituzu iturriak  
eta isilik datoz ur biziak...  
zarata gabe, soinu gozotan,  
asetzen duen iturri,  
bihotzarentzat hazkurri,  
maitasun-jolas bihurri.

Zurekin nahi dugu geldi,  
samariar emakume larri,  
iturri-ondoan, beti egarri...  
ase-goza-baretu gaitzazu,  
maitasuna baitzara zu,  
maitasun hutsa zara zu.

*(Isilunea utzi eta «Pazkora bidean» kanta daiteke)*

## **2. Kantua**

Jauna, zure dei-hotsa heldu da herrira  
ta zure fededunak martxan jarri dira  
ilunpe gaiztotatik argira!

Penitentzi ta damuz Garizuman gora,  
ibil-pauso apalez badakigu nora:  
argiz pozten gaituen Pazkora!

Barauz arintzen zaigu aurrera-nahia,  
indarren sendabide Hitzaren mahaia.  
Lata den arren, martxa alaia!

Maite duzun eskaintza elkarren ardura,  
gure maitasun-lanak zu zaitu helmuga:  
zure onginahiaren kantu da!

Gure Jaun errukior ta bihotz handiko,  
kantu bekatari hau hartzazu begiko:  
gorespen, aintza zuri betiko!

*(Isilunea...)*

## **3. Jainkoaren Hitza**

San Joanen Ebanjeliotik (*Jn 4*).

Jakin zuten fariseuek Joanek baino ikasle gehiago egin eta jende gehiago bataiatzen zuela Jesusek, nahiz eta bataiatu, ez zuen Jesusek berak bataiatzen, haren ikasleek baino. <sup>3</sup>Jesus, hori jakitean, Judea utzi eta Galileara joan zen berriro.

Bere ibilbidean Samarian zehar iragan beharra zuen. Iritsi zen, bada, Sikar izeneko Samariako hirira, antzina Jakobek bere seme Joseri ondareztat emaniko lursailetik hurbil. Han zegoen Jakobek putzua delakoa. Jesus, bidez nekatu, putzu-ertzean eseri zen. Eguerdi ingurua zen. Ikasleak hirira joan ziren janaria erostera. Hortan, Samariako emakume bat etorri zen putzura ur bila. Jesusek esan zion:  
— Emadazu edaten.

Orduan, emakume samariarrak esan zion:

—Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi? (Jakin behar da juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik).

Jesusek erantzun zion:

—Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke.

Emakumeak esan zion:

—Jauna, ez daukazu ura zerez atera, eta putzua sakona da. Nondik aterako duzu, beraz, ur bizi hori? Geure aita Jakobek utzi zigun putzu hau eta bertatik edan zuten berak, beraren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiagoa al zara zu?

Jesusek ihardetsi zion:

—Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan.

Orduan, emakumeak:

—Jauna, emadazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dezadan.

Jesusek esan zion:

—Zoaz etxera, dei egiozu zeure senarrari eta itzuli hona.

Emakumeak erantzun:

—Ez dut senarrik.

Eta Jesusek:

—Ongi diozu ez duzula senarrik; bost izan dituzu, eta oraingoa ez duzu senarra; horretan egia diozu.

Emakumeak esan zion:

—Jauna, profeta zarela ikusten dut. Gure gurasoek mendi honetan eman zioten kultu Jainkoari; zuek, juduok, berriz, Jerusalemen eman behar zaiola diozue.

Jesusek esan zion:

—Sinetsiezadazu, emakume: badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalemen, Aita adoratuko ez duzuen. Zuek, samariarrok, ez dakizue zer adoratzeko duzuen; guk badakigu zer adoratzeko dugun, salbamena juduengandik baitator. Baina badator ordua —hobeto esan, heldu da—, egiazko adoratzailerik Aita egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratu dutena; horrela adora dezaten nahi du Aitak. Jainkoa Espiritu da, eta hura adoratzeko dutenek egiaren arabera eta Espirituak eraginda adoratu behar dute.

Emakumeak esan zion:

—Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigula.

Jesusek esan zion:

—Neu naiz, zurekin mintzo naizen hau.

Emakumeak suila utzi, hirira itzuli eta esan zion jendeari: «Zatozte egin dudan guztia esan didan gizon bat ikustera. Ez ote da bera Mesias izango?»

Jendea hiritik irten eta Jesusengana joan zen.

Hiri hartako samariar askok sinetsi zuen Jesusengan emakumeak emandako testigantzagatik: «Egin dudan guztia esan dit».

Beraz, samariarrek, Jesusengana etorri zirenean, beraiekin gelditzeko eskatu zioten Jesusi, eta bi egunez egon zen han. Jesusen mezua entzutean, askoz

gehiagok sinetsi zuten, 42eta emakumeari esaten zioten: «Orain ez dugu zure esanarengatik bakarrik sinesten; geuk entzun dugu, eta badakigu, egiaz hauxe dela munduaren Salbatzailea».

#### 4. Kantua (errepikatu bost-sei bat aldiz)

Zu - ree-ga - rri naiz, mai - ta - sun - i - tu - rri! Ba - rru - a la - rri, Jau -

na, zu - ree - ga - rri!

#### 5. Barne-lana galderaz edo aitortzaz

(Isil-une luzeak eta musika suabea tartekatuz)

- Maitasuna aipatzeak zer sortzen dit barruan?:  
akaso, maitasun-ezinen tristura?  
edo, amets handien nostalgia?  
edo, bihotza poztan didan sentimendu ederra?
- Sinesten al dut Jainkoak maite nauela?  
Neurri gabeko maitasunez maite nauela?  
Merezi ez dudan eta mereziko ez dudan maitasunez maite nauela?  
Ondoan sentitzen al dut Jainko maitalea?
- Jauna maite dudala esan bai, baina zeintzuk dira nire zaletasunak?  
Zerk erakartzen nau, zerk lotzen dit bihotza?  
Zeri edo nori utzi diot nire bizitzaren giltza?  
Jaunak zure maitasuna nahi du!
- Jainkoaren maitasuna behar al dut, nahi al dut?  
Jainkoaren maitasunik gabe, ondo bizi al naiz, aski aseta?  
Arraroegia egiten al zait Jainkoaren maitasunaz hitz egitea bera?  
Galdetzen al dut nola bizi naizen, zer behar ditudan barruan?
- Jaunak esan dit maite nauela, asko maite nauela.  
Maitasun horren aurrean errenditu nahi dut...  
Jaunari eskerrak eman nahi dizkiot...  
Ederra da maitatua sentitzea... Oso ederra!

## **6. Sinbolo edo irudiren bat**

*(Musikak jarraitzen duen bitartean, nahi dutenek uretara hurbildu eta, eskua bustiz, «Aitaren» egin dezakete... Mugimendu eta zarata asko gabe, ahal den neurrian)*

## **7. TE DEJO GANAR. Jesús Adrián Romeroren abestia**

Ya no quiero luchar.  
Ya no quiero pelear .  
Hago a un lado las armas  
en las que confiaba y te  
dejo ganar.

Me ha vencido tu amor y tu buen corazón.  
He venido a rendirme a tus pies y decirte te doy el control.  
Vengo hasta la cruz a rendirme,  
si quieres hoy recibirme.  
Vengo a caer a tus pies  
y a decirte por siempre eres tu mi Señor,  
hoy te entrego las riendas de mi corazón.  
Me cansé de pelear  
y tu amor evitar,  
me di cuenta que pierdo  
si gano esta lucha contra la verdad.  
Hasta aquí me alcanzó mi obstinada razón.  
He borrado la raya que me separaba de tu bendición.

Vengo hasta la cruz a rendirme,  
si quieres hoy recibirme.  
Vengo a caer a tus pies  
y a decirte por siempre eres tu mi Señor,  
hoy te entrego las riendas.  
Vengo hasta la cruz a rendirme,  
si quieres hoy recibirme.  
Vengo a caer a tus pies  
y a decirte por siempre eres tu mi Señor,  
hoy te entrego las riendas de mi corazón,  
de mi corazón,  
de mi corazón.

## 8. Maitasunari sinesmena!

Nora begira bizi izan naiz?  
Nora begira bizi naiz?  
Nora begira bizi nahi dut?  
Nori, zeri, eman diot bihotza?  
Zeri, nori, nire sinesmena?

Hainbeste gauzek sortzen didate  
tiradizoa, atrakzioa...  
Hainbeste aldiz sentitu dut  
bide okerren traizioa...

Gaur ikusten dut, Jauna,  
zuk bakarrik maitatu nauzula  
nire sinemena entregatzeko moduan...  
Zuk bakarrik dakizula  
era honetan, neurri honetan, maitatzen...

Eta, egia aitortuko dizut:  
ez dakit zer egingo dudan,  
ez dakit zer egiteko gai izango naizen...  
Baina, Jauna, okertzen banaiz ere,  
galtzen banaiz ere,  
baztertzen bazaitut ere...  
zuk ez nazazu baztertu,  
ez nazazu begietatik galdu,  
ez zaitez nire bidetik aldendu.

Bestelako maitasun eta zaletasun  
batzuek menpetuko naute, ziur aski,  
baina, Jauna, zu maite zaitut...  
Nire maitatu ezina bera  
hartzazu zeuretzako maitasun bezala.

Zure maitasunari bakarrik  
zor baitzaio sinesmena.  
Maite nauzu, Jauna, maite zaitut.  
Zure maitasuna ez dadila errenditu  
zure ahazturaren etsira.

## 9. Azken kanta

**Jaungoiko Aitak**  
hainbat maite gaitu,  
Kristorengan  
seme egin gaitu!

Jaungoikoak horrela maitatu bagaitu,  
gure kontra nor daiteke altxatu?!

Gu nork galduko?  
Jainkoak galduko ote gaitu?  
Gure Aitak bazterrera utziko ote gaitu?  
Baina nola? Gugatik Semea hil du-ta!

Eta Semea eman digun Jainkoak  
ez al dizkigu orain on guztiak emango?

Gu nork galduko?  
Kristoren maitasuna nork kenduko?  
Nahigabeak, larriak edo heriotzak?  
KRISTOGATIK garaile aterako gera!

Badakigu ez gaituela ezerk aldenduko  
maite gaituen haren maitasun sendotik!